

EZKIO-ITSASO

Bisitarien kopurua %6 igo da 2013an Igartubeitin Museoan

Kontzertuak, tailerrak, lehiaketak, dokumentalak, Baserri eta Sagardo egunak... ez ziren falta izan iaz ere

23.01.14 - 00:09 - :: GALILEA | EZKIO-ITSASO.

Urtea amaitu eta 2013ko balentzea egiteko garaia iritsi da Igartubeitira, datuen arabera bisitarien igoera bat egon delarik. Museokoen hitzetan, 2012. urtearekin alderatuz, % 6ko igoera izan da bisitarien kopuruan Igartubeiti Baserri Museoan. Martxo eta urria izan dira museoak bisitari gehien jaso dituen hilabeteak, «hauetan antolatzen ditugun jarduerak direla eta, Martxoan Bertsoa eta Sagardo Astea, alegia», diote.

Ekintzei dagokionez, 2013. ean zehar ugari antolatu dira museoan. Musika kontzertua izan genuen, Antioko musikaldiarekin lankide-tzan, bertan Jurdana Otxoa, Maider Zapirain eta Ainhoa Franco hirukoteak osatzen duten Attrium taldeak kontzertua eskaini zuelarik Igartubeitiko dolarean, Zumarragako Antioko XXX. Musikaldiaren barne. Bestalde, aurten ere Sagardo Astea ospatu da, Yartu elkartearen eta Ezkio-Itsasako udalaren lankidetzarekin, aurreko ediziotan hasitako ildoari jarraituz, Josu Landak, Ezkioko Ostatuko sukaldariak sukaldaritza tailerra zuzendu zuelarik, parte hartzaileek, sagar, patata eta foie lasaina sagardo saltsarekin eta sagar tarta egiten ikasiz. Eta sagar zarpaketez gain, aurten ere, kirikoketa izan genuen Jo ala Jo Arizkungo elkartearen eskutik, eta baita an-tzespenak ere Yartu Kultur elkartearen eskutik.

Baserri Eguna ere ez zen falta eta honen 5. edizioa izan genuen 2013. ean, bertan emakumeak landa ingurunean izan duen garran-tzia azpimarratu nahi izan zelarik. Azken horretarako, Paisaia eta memoria: Ezkio-Itsasoko emakumeak erakusketa, krema, ukendu, enplastoak egiten ikasteko tailerra, Maite Aristegiren hitzaldia, 'Ajoarriero' herri bazkaria eta Gaur zortzi azokan izeneko dokumentalaren emanaldia antolatu zituzten.

«Barrikotea eta martxoan bertsoa saioa antolatu genuen Yartu elkarte eta Urretxu-Zumarragako bertso eskolaren lankidetzarekin martxoaren 9an. Bertsolari saioaren ondoren, Barrikotea, Igartubeitin urrian egindako sagardoaren dastaketa eta Jaione Sasieta, Alex Aranburu kirolaiei omenaldia eta afari-meriendaz gozatu genuen trikitixa giroan», gogoratzen dute museotik.

Martxoan bertsoekin lotutako beste jarduera bat ere izan zen Igartubeitin, Urola Garaiko Emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Arloak Ez da Kasualitatea bertso saioa antolatu zuen Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarauaren barne. Honetan goi mailako bertsolariek parte hartu zuten, Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Maddi Ane Txoperena, Uxue Alberdi, Eneko Sierra eta Xabier Matxain musikariekin batera.

Azkenik, 2013an Arte eta Natura Zikloarekin eta Areago, soinueta murgilduz ibili, ondare berrikuntzaren inguruko proiektuak martxan ipini dira Igartubeitin.

Bisitari kopurua

Esan bezala bisitarien kopurua %6 igo da 2013an, konkretuki 375 bisitari gehiago gerturatu direlarik. Bisitarien tipologiari dagokionez, 2013an ere, emakume gehiago izan dira gizonak baino. «Adinaren arabera 18 urtetik beherakoak bisitarien % 40-a osatzen dute, ikastetxeetatik datozen bisitak eta umeei zuzendutako tailerrak direla eta», azaltzen dute. «Bisitari gehiago etorri dira taldean, banaka baino. Hau da, lagun taldeak, ikastetxetakoak, euskaltegiakoak, eta abar».

Euskal Herri mailan bisitarien gehiengoak gipuzkoakorrak izan dira. Ohikoa den bezala, Espaini mailan gehiengoak katalanak eta madrildarrak, eta atzerriarrei dagokionez, Estatu Batuarrek eta Argentinarrak etorri zaizkigu gehien. «Hirugarren postuan dauden arren frantsesen bisitari kopurua urtez urte igotzen ari da eta 2012an iparraldetik bisitan etorri zen kultur talde baten iradokizuna kontutan izan dugu, hemendik aurrera ikusentzunezkoak, informazioa eta bisita gidatuak